

Gender A B C

Lehen Hezkuntzarako
heziketa-programa



**Gorputzaren segurtasuna /
Emakumeen genitalen mutilazioa**

GenderABC (ABC Generoa) proiektuaren koordinatzailea da



eta abian jarri dutenak dira



Argitalpen hau Europar Batasuneko Eskubideak, berdintasuna eta Herritartasuna Programak (2014-2020) finantzatu du.



Lehen Hezkuntzarako
heziketa-programa

Gorputzaren segurtasuna / Emakumeen genitalen mutilazioa

Heziketa-modulu hau **Médicos del Mundo** eta **APF – Associação para o Planeamento da Família** elkarteak landu dute GenderABC proiektuaren barruan.

Aurkibidea

Aurkibidea	2
I - atala: Sarrera	3
1. Xedea	3
2. Gai nagusiak	4
3. Gako-hitzak	4
4. Ikasketa-xedeak	4
5. Jardueren zerrenda	5
I - atala: Jarduerak	6
1. jarduera: <i>Gure gorputz bikainak</i>	6
• Testuingurua	6
• 1. ariketa – Atal guztiek izen egokia behar dute	7
• Gidoia	7
• Jarraibideak	8
• 2. ariketa – Gorputz-integritatea	9
• Gidoia	9
• Jarraibideak	11
• 3. ariketa – Gorputz-kontaktua	13
• Gidoia	13
• Jarraibideak	13
2. jarduera: <i>Sentimenduen jolasa</i>	14
• Testuingurua	14
• Gidoia	15
• Jarraibideak	17
3. jarduera: <i>Sorpresa pozgarriak eta sekretu arriskutsuak</i>	18
• Testuingurua	18
• Gidoia	18
• Jarraibideak	23
Saioaren egitura	24
Moduluen zerrenda	25

I - atala

SARRERA

1. Xedea

Osasunaren Mundu Erakundeak honela definitzen ditu “Umeen tratatu txarrak”: 18 urte baino gutxiagoko haurrei gertatzen zaien abusua eta arduragabekeria. Horien barnean sartzen dira era guztietako tratatu txar fisikoak eta/edo emozionalak, sexu-abusuak, arduragabekeriak, utzikeriak eta esplotazio komertzialak edo beste edozein eratako esplotazioak, haurraren osasunari, biziraupenari, garapenari edo duintasunari kalte eginez edo kalte egiteko arriskua izanez, erantzukizun, konfiantza edo botere harreman baten barruan. Datu erabilgarrien arabera, emakumeen % 20ak eta gizonen % 5-10ak sexu-abusuak jasan izan zituzten haurrak zirenean¹. Europako Kontseiluaren arabera, kasu guztien % 70etik % 85era artean, abusatzailea haurrak ezagutzen duen eta harekin konfiantza duen norbait da, eta gehienetan gizonezkoa izaten da. Egileen % 70ak biktimak ezagutzen ditu abusua gertatu aurretik, eta hemen behean zerrendatutako lehen bi kategorien barruan sartzen da. Horietako batzuek posizio garrantzitsuak izaten dituzte komunitatean, eta beren estatusa erabiltzen dute haurrak errazago eskuratzeko eta beren familien konfiantza izateko.

Haurren sexu-abusatzaileak honako hauek izan daitezke:

- Haurraren familiako edo familia-inguruko norbait, guraso bat, guraso-orde bat, senide bat edo familia-lagunak barne.
- Haurraren konfiantzako pertsona helduen inguruko norbait, eskolako langileak, irakasleak, entrenatzaileak, scout laguntzaileak, elizako jendea, doktoreak, zaintzaileak barne.
- Beste haur batzuei sexualki kalte egiten dieten nerabeak eta haurrak. Katgoria horretako haurrek, gutxienez, 5 urte izan ditzakete. Katgoria horretako haur gehienak gizonezkoak dira, ikaragarria bada ere. Horietako gutxi batzuk sexu-erasotzaile helduak bihurtzen dira.
- Haur-usteltzaileak, edo haurrei irudi pornografikoak edo zuzeneko sexu-emankizunak erakusten dizkietenak, haurren inhibizioak gutxitzeko.
- Interneteko haurren pornografia-erabiltzaileak.
- Haur-trafikatzaileak, haurren prostituziorako haurrak biltzen dituztenak.
- Prostituzio-bezeroak, haur baten sexu-zerbitzuak jakinaren gainean erabiltzen dituztenak².

Tradiziozko praktika kaltegarriek ere arriskuan jartzen dute emakumeen eta nesken gorputz-segurtasuna. Hori hala gertatzen da Emakumeen Mutilazio Genitalean, hau da, emakumeen kanpoko genitalak partzialki edo erabat kentzeko prozedura guztien, edo emakumeen organo genitaleri arrazoi ez-medikuen ondorioz egindako kalte guztien kasuan, Osasunaren Mundu Erakundeak definitzen duenaren arabera.

¹ Osasunaren Mundu Erakundeak; online eskuragarri hemen: <https://www.who.int/news-room/fact-sheets/detail/child-maltreatment>
² Europako Kontseilua, “One in five” Campaign (“Bat Bostean” kanpaina); online eskuragarri hemen: https://www.coe.int/t/dg3/children/1in5/WhatWeKnow/perpetrators_en.asp

EMG mundu mailan gertatzen den emakumeen eta nesken aurkako indarkeria mota bat da. Eskolek, irakasleek eta hezitzaileek arrisku-faktoreak hartu beharko lituzkete aintzat, eta, aldi berean, parte-hartzaileak estigmatizatzea saihestu beharko lukete. Modulu honen helburua da ziurtatzea parte-hartzaileek badakitela inork ezin duela beren gorputza ukitu edo aldatu beren baimenik gabe.

Beldurtu ordeztu, moduluaren helburua da neskei –eta mutilei– laguntzea beren buruak babesten; horretarako, irakatsiko zaie arriskuak hobeto identifikatzen, estrategia egokiak hartzen eta generoan oinarritutako indarkeriaren aurka jarduten. Mutilek ikasiko dute ezin dituztela neskak ukitu haien baimenik gabe.

Moduluak sei mezuren gainean lan egingo du, parte-hartzaileak gai izan daitezen generoan oinarritutako indarkeria errazago identifikatzeko, aurreikusteko eta beren burua babesteko³:

1. Nire gorputza nirea da: Ez da ezetz.
2. Gorputzeko atal pribatuak.
3. Ukitze seguruak eta ez seguruak.
4. Sekretu arriskutsuak eta sorpresa pozgarriak.
5. Entzun zure gorputza: hasierako oharpen-seinaleak.
6. Konfiantza-sarea.

2. Grai nagusiak

- Gizakiaren gorputza: zati intimoak
- Ukitze seguruak eta ez seguruak
- Sentimenduak/emozioak eta gorputz-hizkuntza
- Sekretu eta sorpresa pozgarriak

3. Grako-hitzak

Emakumeen Genitalen Mutilazioa • Gizakiaren atal intimoak • Emozioak
Konfiantza-sarea • Gorputzaren segurtasuna • Sorpresak eta sekretuak

4. Ikasketa-xedeak

- Jendearen mugak zein diren ikasi, ukitzeari dagokionez.
- Emozioak ezagutu eta gorputz-hizkuntzan konfiantza izan.
- Identifikatu zer alde dagoen sekretu arriskutsuen eta sorpresa pozgarrien artean.
- Generoan oinarritutako indarkeria prebenitu.
- Emakumeen Genitalen Mutilazioa prebenitu.

³ Educate2Empower Publishing erakundeak hainbat hizkuntzatan landutako horma-irudia erabil dezakegu; online eskuragarri hemen: <https://e2epublishing.info/posters>

5. Jardueren zerrenda

	 Jardueraren izena	 Helburu-adina	 Iraupena guztira	 Materialak	 Garrantzia ⁴
1	Gure gorputz bikainak	6-8 urte	45-60 minutu	• Haurren gorputzaren gaineko 2 eskema txiki: bat bulbarekin, eta beste bat zakilarekin eta barrabilekin • 1 Arbeleko puzzlea genero neutraleko gorputz baten siluetarekin (9 zati berdinetan zatituta) • A3 orri 1, genero neutraleko gorputz batekin talde bakoitzeko • 5 koloretako arkatzak edo errotuladoreak talde bakoitzeko	★ ★ ★
2	Sentimenduen jolasa	6-8 urte 9-12 urte	50 minutu	• Sentimendu-jolasa • Dadoak eta kolorezko zatiak • Emozioen txartelak • Kartoi zuriak • Haurrentzako artaziak • Atzamarrak margotzeko koloreak	★ ★ ★
3	Sorpresa pozgarriak eta sekretu arriskutsuak	6-8 urte 9-12 urte	40 minutu	• Egoera-txartelak	★ ★ ★

⁴ Jarduerak izarrekin sailkatzen dira (izar bat eta hiru izar bitarteko sailkapenarekin) garrantziaren arabera; adibidez, “oso gomendagarria” den jarduera bat hiru izarrekin sailkatzen da.

II - atala

JARDUERAK

I. jarduera Gure gorputz bikainak ★★★



Jardueraren iraupena guztira

45-60 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 30-45
Segimendua: 10



Materialak & Baliabideak

- ☐ Haurren gorputzaren gaineko 2 eskema txiki: bat bulbarekin, eta beste bat zakilarekin eta barrabilekin⁵
- ☐ 1 Arbeleko puzzlea genero neutraleko gorputz baten siluetarekin (9 zati berdinetan zatituta)
- ☐ A3 orri 1, genero neutraleko gorputz batekin talde bakoitzeko
- ☐ 5 koloretako arkatzak edo errotuladoreak talde bakoitzeko
- ☐ Ukitze segurua / Ukitze ez segurua bideoa⁶

aukerako



Helburu-adina

6-8 urte

→ TESTUINGURUA

Jardueraren helburua da **parte-hartzaileei laguntzea bere gorputzeko sexu-atalak beren gorputzeko gainerako atalekin integratzen, eta erakustea beren gorputza beraiena dela eta inork ezin duela baimenik gabe ukitu**. Aldi berean, ikasiko dute inoren gorputza ez ukitzen hark horretarako baimena eman ezean.

Haurrek genitalentzako terminologia formala ezagutzen eta erabiltzen dutenean – zakila, eskrotoa, klitoria, bulba, bagina–, gaitasun handiagoa izaten dute jarrera lotsagarriak edo sexu-jazarpenak eta emakumeen mutilazio genitala moduko abusuzko jokabideak ezagutzeko, komunikatzeko eta azaltzeko. Izan ere, neskek eta mutilek zailtasunak dituztenean beren genitalen gainean hitz egiteko, galderak egiteko lotsa handiagoa izaten dute, eta, ondorioz, are gutxiago jakinarazten diote pertsona heldu bati norbaitek era ezegokian ukitzen badute. Beren gorputzeko atalak izendatzeko hitz formalak ezagutzen ez dituztenean eta ezagutzarekin lortzen den jabetza-zentzurik ez dutenean, haurrak ahulagoak dira.

⁵ Online eskuragarri hemen: https://static1.squarespace.com/static/50769910e4b07864e5d07147/t/54726dbfe-4b087a17996e137/1416785343396/BSE_ResourceMasters1-13.pdf


⁶ Haurren abusuaren aurkako borroka, *Safe Touch/Unsafe Touch*; online eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=zNTUMNKSXwk>

1. ariketa – Atal guztiek izen egokia behar dute⁷

→ GIDOIA



Parte-hartzaileei eskatuko diegu pertsona guztien gorputzeko atal komunak izendatzeko eta ukitzeko; esaterako: burua, bekokia, belarriak, masailak, kokotsa, sudurra, lepoa, sorbaldak, besoak, ukondoak, eskumuturrak, eskuak, atzamarrak, bularra, saihetsak, bizkarra, gerria, aldaka, sabela, izterrak, belaunak, bernak, orkatilak, oinak eta behatzak.



Ondoren, parte hartzaileei galdetuko diegu ea gorputzeko atalen bat ezin izan duten ukitu edo izendatu; erantzun batzuk jaso eta eta arbelean idatziko dituzte. Atal horiek barruko arropekin estaltzen diren gorputzeko atalak dira.



Ondoren, parte-hartzaileei galdetuko diegu zer gorputzeko atal intimo dituzten denek, esaterako, uzkia eta titiburuak, eta gero, parte-hartzaileei azalduko diegu gorputzeko atal batzuk neska gehienek dituztela, eta gorputzeko beste atal batzuk mutil gehienek dituztela.



Emakumeen gorputzaren marrazkia erakutsi eta bulba seinalatuko dugu, eta parte-hartzaileei galdetuko diegu atal horretarako izenik ezagutzen ote duten; izen horiek idatziko ditugu arbelean –argot-izenak eta familian erabiltzen diren izenak ere onartuko dira–. Ondoren, parte-hartzaileei izen formalak irakatsiko dizkiegu eta horiek errepikatzeko eskatuko diegu.

⁷ ReCAPP, Resource Center for Adolescent Pregnancy Prevention (ReCAPP Nerabeen Haurdunaldien Prebentziorako Ikerketa Zentroa); online eskuragarri hemen: <http://recapp.etr.org/recapp/index.cfm?fuseaction=pages.LearningActivitiesDetail&PageID=155#introduction>



E Gero, mutilaren gorputzaren marrazkia hartu eta aurreko prozedura errepikatuko dugu, eta parte-hartzaileei eskatuko diegu atal intimoen izenak emateko; gero izen formalak eman, eta parte-hartzaileei eskatuko diegu hitz bakoitza errepikatzeko.



F Azkenik, parte-hartzaile bakoitzari folio bat eman eta eskatuko diegu beren gorputzak marraztea ilearekin, aurpegiarekin, titiburuekin eta bulbarekin edo zakilarekin eta barrabilekin, eta beren atal intimoen izen zuzena idaztea ere eskatuko diegu.

Jardueraren lehenengo zatia amaitzeko, “Ukitze segurua / Ukitze ez segurua” bideoa jar dezakegu, eta gorputzeko alderdi intimoen eta ukitze ez seguruaren ideia berrindartzeko lan egin dezakegu.

→ JARRAIBIDEAK

Parte-hartzaileak bultzatu behar ditugu atal intimoen buruzko segurtasun-arauak barneratzera:

- Nire atal intimoak nire azpiko arrokekin gordetako nire gorputzeko atalak dira.
- Badakit nola identifikatu eta nola izendatu nire atal intimoak beren izen formalen bidez.
- Inork ezin dezake nire gorputza nire baimenik gabe ukitu. Eta nik ezin dezaket inoren gorputza ukitu baimenik gabe.
- Inork ezin dit eskatu bere atal intimoak ukitzeko. Inork ez lidake atal intimoen argazkirik erakutsi behar. Horrelako zerbait gertatuz gero, nire segurtasun-sareko konfiantzako pertsona heldu bati esan beharko nioke berehala, nahiz eta salatua nire familiako norbait izan.

Honelako galderak egingo dizkiegu parte-hartzaileei:

- Nola deitzen zenien zure atal intimoen lehen?
- Nola sentitzen zara zure atal intimoez hitz egitean?
- Zer egin dezakezu norbaitek zure gorputza ukitu nahi badu zure baimenik gabe?
- Nork uki ditzake zure atal intimoak zure baimenik gabe?




2. ariketa – Gorputz-integritatea

→ GIDOIA



A Materialari dagokionez, arbel-orri bat erabiliko dugu eta genero neutraleko gorputz baten silueta marraztuko dugu (ariketa honen amaierako adibidean erakusten denaren modukoa).



B Marrazkia tamaina bereko 9 zatitan banatuko dugu (3x3 laukizuzenak), puzzle bat sortze aldera; horretarako, kontuan izango dugu pieza batek buru osoa hartzen duela, beste pieza batek esku osoa hartzen duela, beste pieza batek oin osoa hartzen duela, eta (batez ere) pieza batek pelbis-eremu osoa hartzen duela (hau da, sabela eta genitalak, uteroa eta bulba barne hartu ahal izateko).




C Jarduera hasteko, parte-hartzaileak zirkulu batean esertzera gonbidatuko ditugu, eta boluntario bati puzzlea egitea eskatuko diogu.



D Ondoren, puzzleko pieza bat kendu eta honako hau galdetuko diogu taldeari:

- Norbaitek zure gorputzeko atal hau kentzen badu, zer gertatuko zaizu? (adibidez: “Buruko atala” gabe = “Ez dut gehiago pentsatuko”; “Eskuaren atala” gabe = “Ez dut gehiago idatziko”; “Oinaren atala” gabe = “Ez dut gehiago oinez egingo”; “Pelbis-eremuko atala” gabe = “Agian ezin izango dut haurrik izan nagusia naizenean”).



Ondoren, pieza hori puzzlean jarriko dugu berriz ere, eta beste pieza bat kendu eta prozesua errepikatuko dugu. Burua, hankak eta/edo besoak moduko piezak hasieran kendu behar dira, eta ondoren, pelbis-eremuko pieza ken daiteke.

Honako hau galdetuko dugu:

- Ezberdina al da mutila edo neska bazara?
- Zer gertatzen da mutila bazara?
- Zer gertatzen da neska bazara?



Gorputzeko atal bat kentzera eraman dezaketen egoerak eta horien ondorioak, eta horren aurrean hartu beharreko prebentziozko neurriak honako hiru galdera hauek eginez landuko ditugu:

1. Zer gertatzen zaio pertsona bati bere gorputzeko atal hori kentzen badugu?
2. Zer egoeratan gerta daiteke hori?
3. Nola prebenitu dezakegu hori?

1. adibidea: “Zer gertatzen zaio pertsona bati bere hanka kentzen badugu?” (pertsona horrek ezingo luke oinez zuzen ibili); “Zer gertatzen zaio pertsona bati bere burua kentzen badugu?” (pertsona horrek ezingo luke zuzen pentsatu); “Zer gertatzen zaio pertsona bati bere genitalak kentzen baditugu?” (pertsona horrek ezingo luke txizarik ondo egin, ezingo luke ondo ugaltu, ezingo luke ume bat ondo erditu).

2. adibidea: “Zer nolako egoeratan galdu ahalko lituzke pertsona honek bere hankak? (kotxe-istripua); “Zer egoeratan galdu ahalko luke pertsona honek bere burua/adimena?” (osasun mentala); “Zer egoeratan galdu ahalko lituzke pertsona honek bere atal intimoak?” (EGM nesken kasuan).

3. adibidea: “Pertsona honek prebenitu dezake kotxe-istripu batean kalte larriak ez izatea?” (segurtasun-uhala); “Pertsona honek nola prebenitu dezake burua ez galtzea?” (estresaren kudeaketa, osasun mentaleko laguntza); “EGMren eragina duen komunitate bateko neska izanez gero, neska horrek zer nolako prebentzio-neurriak har ditzake bere atal intimoak ez galtzeko?” (laguntza-zerbitzuekin harremanetan jarri, EGMrekin amaitzeko konpromisoa hartu duten komunitateko liderrekin hitz egin, Poliziari deitu).

→ JARRAIBIDEAK

Honelako galderak egingo dizkiegu parte-hartzaileei:



- Zure gorputzeko zer atal kendu daiteke zure osasuna arriskuan jarri gabe? (adibidez: nire ilea moztu dezaket; nire azazkalak moztu ditzaket)
- Zure gorputzeko zer atal ezin daiteke kendu zure osasuna arriskuan jarri gabe? (adibidez, ezin dezaket nire besoa kendu; ezin dezaket nire hanka kendu; ezin ditzaket nire atal intimoak kendu edo moztu).


Parte-hartzaileak bultzatu behar ditugu gorputz osotasunaren eta EGM prebenitzearen gainera segurtasun-arauak barneratu ditzaten, esaterako, honako hauek:

Gaixorik izan ezean eta kirurgiarik behar ezean, inork ezin ditu nire atal intimoak moztu edo kendu; eta prozedura hori gertatu beharko balitz, ospitale batean egin behar da mediku baten bidez, hau da, ez da ez erritual bat ez jai bat.

Gorputzeko atal intimoen, gorputz-osotasunaren, norbere gorputza zaintzeko eskubidearen eta norbere buruaren gainean erabakitze eskubidearen inguruko gaien gaineko eztabaidek aukera bat eman dezakete EGMari buruzko gaia lantzeko, eta horren ondorioz, nesken gorputzetan gauzatu daitezkeen praktika kaltegarriez hitz egin daiteke. EGM generoan oinarritutako indarkeria mota gisa landu behar da, eta emakumeen eta nesken giza eskubideen urraketa moduan. Neskei EGMren, EGMren gaineko arriskuaren, praktika horren galarazpenaren eta hori prebenitzeko moduaren inguruko informazioa ematea haiek ahalduntzeko eta gai horren gaineko kontzientzia izateko modua da.

Nabarmenduko dugu garrantzitsua dela neskentzat –baita beren lagunentzat eta gizonezko senideentzat ere– laguntza eskatzea baldin eta uste badute arriskuan daudela edo beste norbait arriskuan izan daitekeela.

EGMaren gaineko informazio gehiago eta jarduera gehiago aurkitu ahal izango ditugu bigarren hezkuntzako EGM moduluan.




3. ariketa – Gorputz-kontaktua

→ GIDOIA




Parte-hartzaileei eskatuko diegu 4 laguneko taldeak sortzeko. Bakoitzak genero neutraleko gorputz bat izango du inprimatuta A3 tamainako paper zati batean, eta koloretako arkatzak edo azpimarratzaileak emango dizkiegu.



Ondoren, azalduko dugu talde bakoitzak gorputzaren atalak margotu beharko dituela, honako arau hauen arabera:

- **Berdea:** denek uki dezakete nire gorputzeko atal hau/jendeak hor ukitu ahal nau.
- **Morea:** jendeak nire gorputzeko atal hori uki dezake nire baimena emanaz gero.
- **Urdina:** nire gurasoek/lagunek nire gorputzeko atal hori uki dezakete eta ez naiz deseroso sentituko.
- **Laranja:** nire bikotekideak nire gorputzeko atal hori uki dezake nire baimena ematen badiot
- **Gorria:** inork ezin du nire gorputzeko atal hori ukitu nire baimena ematen ez badiot.



Parte-hartzaileei eskatuko diegu beren gorputzeko atalen inguruan zirkuluak marrazteko, horiek kontrolatzen dituzten bakarrak direla pentsatzen badute.

→ JARRAIBIDEAK

Honako galdera hauek egingo ditugu:

- Zer egin dezakezu norbaitek zure gorputzeko atal gorriak ukitzen baditu?
- Nola galdetu ahal diozu norbaiti bere baimena eman dezan?
- Nola erakutsi ahal diozu norbaiti ez diozula baimenik ematen zu ukitzeko?
- Iritziz alda al dezakezu hasieran baietz esan duzun arren?



2. jarduera Sentimenduen jolasa ★★



Jardueraren iraupena guztira

50 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 35
Segimendua: 10



Materialak & Baliabideak

- ☐ Sentimendu-jolasa
- ☐ Dadoak eta kolorezko zatia
- ☐ Emozioen txartelak
- ☐ Kartoi zuriak
- ☐ Haurrentzako artaziak
- ☐ Atzamarrek margotzeko koloreak



Helburu-adina

6-8 urte
9-12 urte

→ TESTUINGURUA

Sentimenduek eta emozioek zeregin garrantzitsua betetzen dute haurraren bizitzan. Gertatzen ari zaienaren adierazleak dira; hala ere, haurrek beren sentimenduak ezagutu eta beren gorputzeko keinuak ulertu beharko lituzkete. Adibidez, emozio desatseginei esker, haurrak arriskuan daudela konturatu daitezke eta horrek arriskuari aurre egiteko zerbait egiten lagun diezaiekete.

Jarduera horren bidez, **parte-hartzaileek beren sentimenduei eta emozioei buruz hitz egiteko erronkari egin beharko diote aurre**: nola erreakzionatzen duten zenbait emozioen aurrean, zerk eragiten dieten emozio horiek eta nola kudeatu behar dituzten. Era berean, aukera bat da emozioak islatzeko eta generoan oinarritutako indarkeria prebenitzeko. **Parte-hartzaileek ikasiko dute ez dagoela mutilen edo nesken emoziorik.**


Jarduera honen helburuak:

- Parte-hartzaileei beren eta besteen emozioak ezagutzen laguntzea, aurpegiaren adierazpenen eta gorputz-hizkuntzaren bidez.
- Esperientziak horiek sortzen dituzten emozioekin lotzea.
- Egoera ez seguruei buruzko informazioa ematen duten gorputz-keinuak identifikatzea.
- Generoan oinarritutako indarkeria prebenitzea.

→ GIDOIA



Parte-hartzaileei eskatuko diegu 5 kideko taldeak osatzeko eta horietako bakoitzari kolore bateko txartel bat emango diogu. Txanda bakoitzean taldeko kide batek jolastuko du, hau da, txandakatu egingo dira.



Talde guztiek dadoa botako dute, eta zenbakirik handiena atera duen taldeak hasiko du jolasa. Txandarako ordena erlojuaren orratzen zentzu berekoa izango da.




Hasi den taldeak dadoa botako du eta aurrera egingo du jolas-taulan. Gero, lauki gorri edo hori batera iristen ez bada, jokalaria txartel bat hartuko du eta bertan idatzitakoa beteko du. Azkeneko laukira lehenen iristen den taldeak irabaziko du jolasa.



Jolasa amaitu ondoren, parte-hartzaileek beren eskua marraztuko dute eskuetarako margoarekin, eta 5 atzamarretako bakoitzean, egoera ez seguruan badaude edo/eta sentimendu desatseginak badituzte haiekin hitz egiteko konfiantza duten 5 pertsona helduren izenak idatziko dituzte.

Jolas-aula⁸:



Txartelak:

Etxean horrela sentitu zinen une bateko historia partekatu.	Izendatu historia horretan, zure ustez, zer pertsonaia sentitu zen horrela.	Marraztu aurpegi bat emozio hori adierazten.	Eskolan horrela sentitu zinen une bateko historia partekatu.
Emozio hori zer kolorekin lotuko zenuke?	Adierazi egoera hori ekintzekin. Aukeratu beste jokalaririk bat horrela sentitu zinen une batek antzetzeko.	Izendatu aurkako emozio bat.	Deskribatu nola sentitzen den zure gorputza emozio hori sentitzen duzunean.
Nola lagunduko zenioke lagun bati horrela sentituko balitz?	Noiz sentitu zinen horrela azkeneko aldiz?	Zerk sentiarazten zaitu horrela?	Zer egin dezakezu horrela sentitzen bazara?

⁸ https://docs.google.com/presentation/d/1Q9uMZfvcVPe8LC4ek7pF_H6sfEE2-AqKCr7HivnQU/edit#slide=id.g57ffc8dee2_0_103

→ JARRAIBIDEAK

Parte-hartzaileak jolasten ari diren bitartean, eztabaidatuko dugu zer nolakoa den pozik, triste, haserre eta abar sentitzea. Parte-hartzaileei galdetuko diegu ea beren ustez mutilen eta nesken emoziorik badagoen eta ea horiek islatu ditzaketen. Parte-hartzaileek ulertu behar dute sentimendu desatseginak eta atseginak arruntak direla eta bai neskek bai mutilek izan ditzaketela.

Zerrenda bat egiten lagundu ahal diegu parte-hartzaileei sentimendu desatseginekin egin beharreko gauzekin eta antzeko egoeretan lagunei laguntzeko moduekin, baita seguru sentitzen ari ez direla jakinarazten dieten gorputz-keinuak ere (hasierako oharpen-keinuak). Hasieran, beren ideia propioak ematen utziko diegu parte-hartzaileei, eta ondoren, lagundu egingo diegu.

Ziurtatuko dugu parte-hartzaileek argi ulertzen dituztela egoera “seguruak” eta “ez seguruak” zer diren. Parte-hartzaileek ulertu behar dute “seguru” eta “ez seguru” sentimenduekin emozio ezberdinak sortzen direla.

Amaieran, parte-hartzaileek jolasean azaldutako sentimenduak ikasiko dituzte, baita egoera ez seguruetako hasierako oharpen-keinuak ere, eta konfiantzako pertsona helduen sarea identifikatuko dute.

!!! HASIERAKO OHARPEN-KEINUAK:

- Buruko ilea tentetu dela sentitzen da
- Bekokia izerditan jartzen da
- Negarrez hasten zara
- Bihotzak taupada azkarrek ematen ditu
- Sabeleko ondoeza sentitzen da
- Oilo-ipurdia agertzen da
- Esku-barrenak izerditan jartzen dira
- Komunera joateko premia sentitzen da
- Dardarka hasten zara
- Hankak ezegonkor jartzen dira

3. jarduerak Sorpresa pozgarriak eta sekretu arriskutsuak⁹ ★★

Jardueraren iraupena guztira
40 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 25
Segimendua: 10

Materialak & Baliabideak
☐ Egoera-txartelak
☐ Sekretuak bideoa¹⁰

Helburu-adina
6-8 urte
9-12 urte

→ TESTUINGURUA

Haur-abusatzailen tresnarik indartsuenetakoa bat da hurrei sekretuak gordearaztea. Hasieran, sekretu txikiekin hasten dira, ikusteko haurrak sekretu horiek gordetzen ote dituen, eta ondoren, predatzaileak pixkanaka-pixkanaka egingo du aurrera, sekretu handiagoak sortuz, haurren konfiantza irabazi ondoren.

Jarduera honek hiru helburu ditu:

- Parte-hartzaileei sekretu arriskutsuak gordetzeko gogoak kentzea.
- Parte-hartzaileei laguntzea "sorpresa zoriontsuen" eta "sekretu arriskutsuen" arteko aldea ikasten.
- Parte-hartzaileak bultzatzea beren konfiantzako pertsona helduei sekretu arriskutsuak kontatzera.

→ GIDOIA



A Parte-hartzaileei eskatuko diegu "sorpresa pozgarri" adierazpena definitu edo azaldu dezatela, eta erantzun guztiak jasoko dituzte, definiziorik zehatzena sortu arte. Ondoren, azalduko dugu adierazpen horren esanahi sakona eta egiazkoa zein den.

Sorpresa pozgarria zerbait dibertigarria da, eta normalean, horren berri duten guztiak alaitzen ditu! Denbora labur baten ondoren jakinarazten da, eta ez dago ez mehatxurik ez ondorio negatiborik denei horren berri ematen ez badiezu. Adibidez, datorren asteburuan familiako kideren baten urtebetetzea da, eta jai-sorpresa bat aurreikusi dute; ondorioz, familiak eskatzen dizu inori ez emateko urtebetetze-jaiaren berri.

⁹ Hemendik egokitua *Kid Smart*, online eskuragarri hemen:

https://www.kidsmartz.org/~media/KidSmartz/ResourceDocuments/Grades 3 5 Surprises vs Secrets_EN.pdf

¹⁰ Haurren abusuaren aurkako borroka, *Secrets*, online eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=uAD17zGjHc>



- B** Bigarrenik, parte-hartzaileei honako galdera hauek egingo dizkiegu:
- Zure ustez nola sentituko da zure familiako kidea jaiaren berri izaten duenean? (Pozik, hunkituta).
 - Norbaitek eskatu al dizu dakizun horri buruz inoiz ere ez hitz egiteko? (Ez).
 - Informazio hori izateak triste, beldurrez edo nahastuta utzi al zaitu? (Ez).
 - Norbaitek zerbait txarrarekin mehatxatu al zaitu beste norbaiti horren berri ematen badiozu? (Ez).



C Galdera horiei erantzun ondoren, parte-hartzaileei azalduko diegu kasu honetan ONDO dagoela familiako kide horri dakitenaren berri ez ematea, familiako kide horrek laster izango baitu horren berri eta poztuko baita; hori ez da beretzat betiko gorde behar duten zerbait, eta hori jakiteak ez du triste, beldurrez edo nahasirik uzten.



- D** Parte-hartzaileei eskatuko diegu beste sorpresa mota batzuen hainbat adibide eman dezatela, arbelean "sorpresa pozgarrien" zerrenda bat sortzeko. Adibide horiek, besteak beste, honako hauek izan daitezke:
- Bisitari-sorpresa (laguna edo familiako kidea).
 - Bihurrikeria-sorpresa/broma.
 - Opari-sorpresa/Gonbidapen-sorpresa, kontatzekoa modukoa.
 - Afari-, mokadu- edo gonbidapen-sorpresa.



Parte-hartzaileei eskatuko diegu "sorpresa arriskutsu" adierazpena definitu edo azaldu dezatela, eta erantzun guztiak jasoko dituzte, definiziorik zehatzena sortu arte. Ondoren, azalpena emango dute, honako galdera hauen bidez:

- Nola egin diezaioke kalte norbaiti sekretu arriskutsu batek? (Norbait horren sentimenduak mindu ditzake; norbait horri laguntza eskatzea eragotzi diezaioke; beste norbaiti kalte egin diezaioke).
- Zure ustez, zein da "sorpresa pozgarria" eta "sekretu arriskutsua" adierazpenen arteko ezberdintasuna? (Sorpresa pozgarriek jendea pozten dute, epe laburrekoak dira, eta horien berri izateak ez zaitu deseroso sentiarazten. Sekretu arriskutsuen helburua besteak baztertzea da, sarritan informazio horrekin besteak haserretu edo nahigabetuko lirakeelako. Sekretu arriskutsuek informazio mehatxagarria izan dezakete zuri edo beste batzuei kalte egiteko, sekretua jakinaraziz gero. Sekretu arriskutsuek nahasmena eta nahigabea sorrarazten dizute sarritan, eta ez dute amaiera-datarik).



F Sekretuak bideoa erakutsi eta sekretu arriskutsuen eta sorpresa pozgarrien arteko aldea azalduko.

Sekretu arriskutsuen helburua da norbaiti zerbaiten gaineko informaziorik ez ematea, besteek horren berri izango balute, haserretuko edo triste jarriko liratekeelako. Batzuetan, norbaitek eskatu ahal dizu sekretu bat betiko gordetzeko. Sekretu arriskutsu batzuk triste, beldurrez, nahastuta edo deseroso sentiarazi ahal zaituzte. Batzuetan, norbaitek mehatxatu egin ahal zaitu zu edo zure inguruko norbaiti kalte egitearekin, baldin eta sekretu arriskutsu bat kontatzen baduzu. Horiek egoera arriskutsu baten oharpen-ikurrak izan daitezke.



G Arbeleko "sorpresa pozgarrien" zerrendaren ondoan, beste zerrenda bat sortuko dugu "ESAN beharko zenituzkeen sekretu arriskutsuak" izenekoa, eta parte-hartzaileei eskatuko diegu emateko hainbat egoeraren adibideak non sekretu bat konfiantzako pertsona heldu bati esan beharko litzaiokeen. Adibide horiek honako hauek izan daitezke, besteak beste:

- Norbait azpiratzen ari dira.
- Norbait deseroso sentitzen da.
- Norbait beldurtuta dago.
- Norbait mintzen ari dira/mindu egingo dute.
- Norbait modu ezegokian ukitzen ari dira.




H Azalduko diegu parte-hartzaileei sekretu arriskutsu bat ezagutzen badute eta konturatzen badira norbaiti horren BERRI EMAN beharko lioketela, inoiz ez dela berandu konfiantzako pertsona heldu bati hori jakinarazteko. Nabarmendu behar dugu parte-hartzaileak ez direla helduen jokabideen arduradunak, eta ez dutela helduek haiek gordetzea nahi duten sekretuen errua.



I Parte-hartzaileei eskatuko diegu konfiantzako pertsona heldu batzuen izenak esatea eta horien izenak ere arbelean idaztea.



J Ondoren, parte-hartzaileak 4 kideko taldeetan banatuko dira, eta egoera-txartelak emango dizkiegu. Talde bakoitzak egoera-txartel bana irakurri beharko du, eta dagokion kategorian utzi beharko du (ESAN beharko zenituzkeen sekretu arriskutsuak / Gordetzeko "ONDO" dauden sorpresa pozgarriak).



K Amaitu ondoren, talde guztiek ozen azalduko dute zergatik kategorizatu duten txartel bakoitza egin duten moduan.



L Zortzi boluntariori eskatuko diegu rol-joko bat egin dezatela "ESAN beharko zenituzkeen sekretu arriskutsuak" kategorian sailkatutako egoera bakoitzaren gainean. Binaka lasaitasunez eta konfiantzaz praktikatuko dute, eta sekretu arriskutsu hori "konfiantzako helduari" azalduko diote.

ESAN beharko zenituzkeen sekretu arriskutsuak

Zure umezainaren mutil-laguna bisita egitera joan da zure etxera. Ez zenuke bisitaririk izan behar zure gurasoak etxean ez daudenean. Umezainak eskatzen dizu gurasoei ez esatea mutil-laguna bisitan joan dela.

Gurasoek irakatsi dizate ezezagonekin ez dela hitz egin behar. Eskolatik etxera bueltatzeko bidean, sarritan, txakurkume txiki batekin oinez dabilen gizon batekin egiten duzu topo eta elkarrekin hitz egiten duzue. Orain dela gutxi, gizon horrek kale kantoiko dendara eraman zaitu zuretzako opari batzuk erosteko, eta zure gurasoei ezer ez kontatzea eskatu dizu.

Lagunak esan dizu bere amaren mutil-lagun berriak besoa igurtzi egiten, besarkadak ematen eta matrailean musuak ematen dizkiola beti. Zure laguna ez dago horrekin eroso, baina ez dio ezein pertsona helduri ezer esan gertatzen ari den horri buruz.

Oporretara zoaz eta denei entzun diezu esaten zuretzako jai handi bat ari direla antolatzen. Hala ere, zure urtebetetzea ez da udan, eta ez zara eroso sentitzen zure familiak informazio gehiago ematen ez dizulako eta jaiaren inguruko sekretuak gordetzen ari delako zure aurrean.

Gordetzeko “ONDO” dauden sorpresa pozgarriak

Merkataritza-gune batean zaude zure aitarekin. Zure amarentzako lepoko bat erosi du bere urtebetetzean emateko. Amari horren berri ez emateko esaten dizu.

Zure gurasoek familia-bidaia bat erosi dute kanpora joateko: Disneylandera joango zarete udako oporretan. Zure ahizpa/arreba txikiari ezer ez esateko eskatu dizute uda heltzen den arte.

Zure gurasoek zure ahizpa/arreba txikia oporretara eramango dute kanpora. Zeharka entzun diezu zure gurasoei hitz egiten, eta konturatu zara bidaia horretan zure ahizpa/arreba erritual bat egiteko eramango dutela eta erritual horretan min egingo diotela (bere gorputzeko atalak moztuz), komunitatean onar dezaten. Era berean, jakin duzu erritual hori ezin dela bizi zaren herrialdean egin, legez kanpoko delako. Zure gurasoek badakite entzun diezula, eta inori ezer ez esateko eskatu dizute.

Badakizu jai hori ez dela urtebetetze-jai bat, neskentzako jai bat dela soilik. Jakin-min handia duzu, eta jai horri buruz gehiago jakin nahi duzu, baina zure familiak ez du nahi horri buruz hitz egin, eta sorpresa bat dela esaten dizu. Errepikatzen duzun bakoitzean, zure familiak ez dirudi pozik dagoenik; aitzitik, nahiko serio dirudi.

Zure lagunaren anaiak dio “ukitzeko jolas” dibertigarri bat ezagutzen duela, eta zurekin jolastu nahi duela, baina haurrentzako dela soilik, eta helduek ezin dutela horren berri izan.

Zure futbol-taldea entrenatzailearentzako jai handi bat ari da antolatzen azkeneko partidaren ondoren egiteko; inork ez luke jai hori aipatu behar haren aurrean.

Lagunak esaten dizu klaseko neska bat oso gustuko duela. Beste inori ez esatea eskatzen dizu.

→ JARRAIBIDEAK

Parte-hartzaileek ulertu behar dute zer sorpresa mota gorde ditzaketen sekretuan, eta horiek gauza dibertigarriak izan daitezkeela, esaterako, opariak, jai-sorpresak, norbaiti sorpresa ematea gauza polit batekin, familia oporretara doan tokia eta abar. Gainera, nabarmenduko dugu sorpresak jakinarazten direnean denak pozten direla. Era berean, parte-hartzaileek ikasiko dute beste era bateko sekretu “seguruak” existitzen direla, alegia, zure lagunekin partekatzen dituzun baina beste batzuekin partekatu nahi ez dituzun gauzak badirela.

Guk, aldiz, nabarmendu behar dugu zein ziren sekretu “ez seguruak” eta arriskutsuak, haurrek berehala ESAN behar dituztenak, besteak beste, honako hauek: norbaitek bere gorputza ukitzea baimenik gabe eta inori ez esatea eskatzea; norbaitek opariak edo mesedeak eskaintzea, eta inori ez esatea eskatzea; edo norbaitek (esaterako, familiako kide hurbileko batek) neskak emakume bihurtzeko erritual bat egin nahi eta hori sekretuan mantendu nahi izatea.

Saioaren egitura

Moduluaren izena: Gorputzaren segurtasuna / Emakumeen genitalen mutilazioa

Ikastetxea: _____

Irakaslea, arduraduna: _____

Ikasgela (Ikasturtea eta data): _____

Parte-hartzaileen kopurua: _____

Data: ____/____/____ Iraupena: _____

Aukeratutako jarduerak: _____

Materialak (berrikusiak): ☐ bai ☐ ez

OHARRAK:

Gender ABC proiektuaren

MODULUEN ZERRENDA

Modulu
Lehen
Hezkuntzarako
heziketa

- 01 Gorputzaren segurtasuna / Emakumeen genitalen mutilazioa
- 02 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 03 Generoan oinarritutako indarkeria
- 04 Generoaren arau sozialak eta estereotipoak
- 05 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 06 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea

Modulu
Bigarren
Hezkuntzarako
heziketa

- 01 Ziber-indarkeria
- 02 Ezkontza goiztiarra eta behartua
- 03 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 04 Emakumeen genitalen mutilazioa
- 05 Genero-indarkeria
- 06 Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak
- 07 Talde-kohesioa
- 08 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 09 Bikote barruko indarkeria
- 10 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea
- 11 Sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak
- 12 Sexu-indarkeria

Dokumentu
laguntzaileak

- 01 Arriskuen ebaluazioa
- 02 Metodologia orokorra
- 03 Glosario orokorra



Ek egindako proiektua:



End FGM
EUROPEAN NETWORK



ASSOCIAÇÃO PARA O PLANEAMENTO DA FAMÍLIA



AIDOS
ASSOCIAZIONE ITALIANA
DONNE PER LO SVILUPPO



Europar Batasunak
kofinantzatutako proiektua